



Egitasmoa

Banan-banan

Elkarrizketak

Bakarizketak

komikizuloa

## Artxiboa laburpen hitzeka: Munduko bandarik txarrena

API\_APIRILA LABURDURA

6

2013

### Baina ez komikirik txarrena

Munduko komiki-haize freskoari leiho bat zabaldu dio *Txalaparta* argitaletxeak azken orduko sorpresa atsegin batekin. Zer eta J. C. Fernandes *Munduko bandarik txarrena* euskaraz argitaratua, nazio arteko komiki adituen aldetik makina bat laudorio jaso dituen lana (merezitakoak gure iritziz). *Bego Montoriok* euskaratua, *Harkaitz Canoren* hitzaurrearekin.

*Munduko bandarik txarrenak* jostundegi bateko sotoan entseguak egiten ditu, eta orkestra horretako kideen gorabehera kaotiko eta kafkianoak dira José Carlos Fernandes portugaldarrak 188 orrialdeko zabaleran kontatzen dituenak. Suposatzen dugu ale honek serie modura planteatutako historiaren lehenengo hiru liburukiak biltzen dituela, *Astiberrik* gazteleraz argitaratutako orri-kopuru berarekin baitator. Portugalen ordea, (eta baita Frantzia ere), *Munduko bandarik txarrena* sei istorio edo liburuki ezberdinez osaturik dago.

Euskal komiki merkatuaren mugak ezagunak ditugu eta ikuspuntu horretatik *Txalapartak*



euskarazko eta kalitatezko komikigintzaren alde egin duen urratsa ausarta da.

Baina *Munduko*

*Bandarik txarrena* komiki

eder bat izateaz gain, lan literario onenaren ezaugarri guztiak ditu. *Borges*, *Kafka*, *Pessoa* aipatzen dute kritikari batzuek, hitzaurrean *Nabokov* aipatzen den bezala. Edo gaur eguneko terminologia erabiliz, *eleberri grafikoaren* esparruan koka

dezakegun lana da “*A pior banda do mundo*”. Azken finean literatura bai, ez, eleberri grafikoa izan ala ez izan, ziurtatu dezakegun gauza bakarra zera da: *Munduko bandarik txarrena* arte lana da, eta ez txarrena, hori seguru.

